Gure ahotsa altxatuko dugu komunitate, herri eta lurraldeak urratzen dituzten gerra eta genozidioen aurka. Edozein gerra-ekintza berehala etetea eskatzen dugu, mehatxu horiek bereziki kaltetzen baitiete emakumeei, neskatoei eta binario ez diren pertsonei. Aniztasunari eraso egiten dioten indarkeria mota guztiak gaitzesten ditugu, eta kontzientziak aldatuko dituen eta mundu aske, justu eta berdintasunezkoa eraikiko duen feminismo inklusibo eta eraldatzailearekiko konpromisoa berresten dugu.

Pertsona guztien bizitza jartzen dugu erdigunean, hesiak eraitsiz eta elkartasun-zubiak eraikiz.

Borrokan jarraitzeko eta persona guztientzako mundu hobea eraikitzeko arrazoiak soberan ditugulako!

ELKARREKIN INDARTSUAGOAK GARA

KALEETAN BORROKATZEA ASKEAGO EGINGO GAITU

BIZITZA ETA GURE ASKATASUNA HONETAN DOAKIGU

CGT LKN

M8 EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

2025EKO M8 MANIFESTUA

Amaitu da! Ez ikusezinak, ez prekariak, ezta zaintzagatik esplotatuak

Emakumeok, bizitza eusten dugula, nahikoa dela diogu eta kaleak hartuko ditugu autonomia, justizia soziala eta zapaltzen gaituen sistemaren abolizioa eskatzeko. Gure bizitzaren eta borrokaren erdigunean zaintzak jartzen ditugu, horiek gabe ez baitago bizitzarik, ez dago ekonomiarik ezta etorkizunik. Sistema cis-heteropatriarkal eta kapitalistak esplotatu egin gaitu zainketak geure gain jartzen, hurak ikusezinak bihurtuz eta emakume eta identitate feminizatuengana baztertuz. Sistema hori banaketa bidegabe baten ondorioz mantentzen da: batzuek ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituzten bitartean, beste hainbatek bizitza eutsi behar dute ugalketa- eta zaintza-lanaren bidez, ordainsaririk gabe, eskubiderik gabe, esplotatuta, prekarioak eta gizartearen errekonozimendurik gabe. Maitasunaren eta betebehar soziokulturalaren aitzakipean, kapitalismoak gure lana bereganatzen du etorkizuneko eskulana bermatzeko, kostuak bere gain hartu gabe.

Uko egiten diogu gu bakarrik ZAINTZAko lan guztia eusteari, esplotatuta, prekarioak eta ikusezinak izaten jarraituz.

ESKATZEN DUGU:

- Zainketak oinarrizko eskubide gisa: Zainketa-sistema publiko, komunitario, unibertsal eta doakoa, bizitza eusten dutenentzat eskubide guztiak bermatuko dituena.

- Lan-baldintza duinak zainketen sektorean ere: soldata justuak, hitzarmen kolektiboak, lan-egonkortasuna eta greba egitea eskura izatea sektoreko langile guztientzat, pentsioetan dagoen genero-arrakala ezabatzea eta bizitza zaintzan eman dutenen aitorpen ekonomiko eta soziala barne.

- Etxebizitza duina eskuratzea: etxebizitza politika bidezkoak eta oinarrizko hornidurak eskuragarri izatea, etxebizitza krisiaren aurrean.

- Edozein krisitatik babestea: Une kritikoetan babes-neurriak bermatzea; izan ere, gerrek, krisi ekonomikoek edo hondamendi naturalek, Valènciako DANAk kasu, neurriz kanpo eragiten diete batez ere zaurgarritasun-egoeran dauden emakumeei eta pertsonei.

CGT-LKNk esplotaziora eta desberdintasunera kondenatzen gaituen egiturazko prekarietatea amaitzea ere eskatzen du:

- Lanaren sexu-banaketaren eta soldata- eta pentsio-arrakalaren amaiera.
- Emakumeen, persona disidenteen, LGTBIQA+en eta abarren aurkako edozein indarkeria mota ezabatzea.
- Lan-osasun arloan genero-joerak desagerraraztea, eta matxismoa ezabatzea, forma eta adierazpen guztietan.
- Gure ahalmenen gainetik lan egitera behartzen gaituen lan- eta pentsio-erreformak indargabetzea.
- Mozal legea indargabetzea.
- Berdinentzako oinarrizko errenta ezartzea eta lanaldia 30 ordura murriztea.
- Emakumeen eta binarioak ez diren pertsonen ikusgarritasuna eta ordezkaritza ekitatiboa eremu guztietan.
- Gizarte ez-kapazitista, inklusiboa aniztasun funtzionalekin eta gorputz ez-arauemaileekin.
- Berdintasun hezkidetzako, prestakuntzako eta sentsibilizazioko politika errealak.
- Migratzaile guztiak erregularizatzea eta atzerritarrei buruzko legea indargabetzea. CIEen itxiera eta deportazioen amaiera.
- Larrialdi klimatikoari aurre egiteko premiazko neurriak.